

Maiatzaren 19an  
**5. PAZKO IGANDEA**

**Agurra**

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Gaur, Jaunaren promesa betetzen da gure artean: «Nonahi nire izenean bildurik zaudetela, han nago ni zuen erdian». Berarekin bat egiten dugu horrela, Berak gurekin bat egiten duen moduan. Inoiz baino presenteago egiten da Jesus Jauna Eukaristian: suma dezagun, onar dezagun, ospa dezagun.

**Bataio-urez zirtatzea**

**Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.**

*Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.*

*Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.*

**Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.**

R/. Amen.

**Erruki, Jauna.** R/. Erruki, Jauna.

**Kristo, erruki.** R/. Kristo, erruki.

**Erruki, Jauna.** R/. Erruki, Jauna.

**Aintza zeruetan**

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

## Otoitza

**Jainko Jauna,  
Zuk gaituzu salbatzen eta zeure seme-alabatzat hartzen;  
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak;  
eta Kristorengan sinesten dugunoi  
emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## Hitzaren liturgiari oharpena

Lehen kristau elkarteak, Pazkoaren esperentziaz nola sortu ziren ikusten dugu igandez igande aldi honetan. Ikus ditzagun geure elkarterako beharrezko ditugun jarrerak zeintzuk diren.

## Lehenengo irakurgaia (Eg 14, 20b-26)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Listrara, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren; sendotu zituzten ikasleen bihotzak eta berotu, sinesmenean iraun zezaten, Jaungoikoaren erreinuan neke asko igarota sartu behar dugula jakin eraziz. Eliza bakoitzean arduradunak izendatzen zituzten, otoitz eta barau egiten zuten, eta beraiek sinesmenean onartutako Jaungoikoaren eskuetan uzten zituzten.

Pisidian zehar, Panfiliara joan ziren; eta Perjen hitza hotsegin ondoren, Ataliara jaitsi ziren; eta handik itsasoz, berriro irtenlekura jo zuten, Antiokiara, handik izan baitziren bidaliak, hain zuzen, Jaungoikoaren graziarekin bete zuten eginkizunerako.

Iritsi zirenean elkarteak bildu zuten, eta beren bidez Jaungoikoak egindako guztia azaldu zioten, baita nola Jaungoikoak sinesmen atea jentilei zabaldu zien ere.

### Erantzun-salmoa (Sal 144, 8-9. 10-11. 12-13ab)

Be - dein - ka - tu - a Jau - na, gu - re Jain - ko - a.

Kupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior, Berak egin ditu enentzat. R/.

Jauna, zure lan guztiek ospa zaitzate,  
zure zintzoek bedeinka zaitzate.  
Zure erregetza zein bikain den aitor bezate,  
zure ahal izateaz hitz egin bezate. R/.

Ezagutaraz biezaie gizakiei zure bizkortasuna,  
zure erregetza ospetsuaren bikaintasuna.  
Zure erregetza, mende orotako erregetza,  
gizaldiz gizaldi zure nagusitza. R/.

### Bigarren irakurgaia (Apk 21, 1-5a)

Apokalipsi liburutik

Nik, Joanek, zero berri bat eta lur berri bat ikusi nituen; lehenengo zerua eta lehenengo lurra joan baitziren; eta itsasorik ere ez zegoen.


Hiri santua ikusi nuen —Jerusalem berria—, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala, zerutik Jainkoarengandik jaisten. Eta

oihu handi bat entzun nuen aulkitik: «Hona hemen Jaungoikoaren etxola gizakien artean; haien artean biziko da. Haiek izango ditu bere herri; eta "Jaungoikoa-haiekin" izango da haien Jainko.

Begietako malkoak txukatuko dizkie. Ez da izango gehiago, ez heriotzarik, ez negarrik, ez garrasirik, ez atsekaberik. Lehengoak joan baitira».

Aulkian zegoenak esan zuen: «Orain gauza guztiak berri egiten ditut».

### Aleluia (Jn 13, 34)



Agindu berri bat ematen dizuet —dio Jaunak—:  
maita ezazue elkar,  
Nik maite izan zaituztedan bezala. R/.

### Ebanjelioa (Jn 13, 31-33a. 34-35)

#### Homiliarako argibideak

*Agindu berria ematen dizuet*

Gazteen sinodoaren ondoren, idatzi berri du Frantzisko Aita Santuak Aholku-hitz apostolikoa, “Kristo bizi da” izena duena. Han adiskidetasunari buruz dioena ederra da gaur entzuteko: *“Adiskidetasuna bizitzaren oparia da, Jainkoaren dohaina. Adiskideen bidez lantzen eta moldatzen gaitu Jaunak. Aldi berean, adiskide leialak, une zailetan gure ondoan daudenak, Jaunaren maitasunaren, pozbideren eta presentzia amultsuaren isla dira.*

*Adiskideak izateak irekiago izaten laguntzen digu, besteak ulertzen eta zaintzen eta gure erosotasunetik eta isolamendutik ateratzen: bizitza elkarbanatzen laguntzen digu” (151. zkia).*

Anaiarteko maitasunak, batez ere errukizko egintzen agertutakoak, harritu zuen erromatar inperioa, kristau fedea zilegitzat jo zutenean, inperioko erlijio aitortu aurretik. Kristautasunak errealitatearen ikuspegi berri bat eskaintzen zuen, nagusi zen pobreziari zegokionez, batez ere. Inperioarentzat, naturala zen aberatsak eta pobreak egotea. Kristau fedearentzat, pobreak ziren Jainkoaren kutunak, eta ondasunak zituztenen zaintzaren xede izan behar zuten. Elkartasun hori, partekatze hori, guztiz berria zen, eta enperadore paganoren batek **estatu askoz ere sozialago** baten beharra ulertu zuen.

Bere ikasleen komunitateko kide izateko seinale bihurtuko du Jesusek anaiarteko maitasuna. Jesusek adierazten duen bezala, **agindu berri** bat da (*Jn* 13,31-35). Besteak maitatzeko agindua existitzen den, dagoeneko. Maite gaituztenak edo atsegin ditugunak maitatzea errealitate atsegina da, eta ez da agindu beharrik, bat-batean irteten baitzaigu. Baina batzuetan gustuko ez ditugunak maitatu behar ditugunez, baita gure etsaiak ere, maitasunaren agindua eman zion Jainkoak bere herriari. Egia da hurkoa Jainkoaren herriko kide izateko zela.

Agindu berria dela esaten digu Jesusek, ordea, hau ez delako “hurkoa zeure burua bezala maitatzea”, baizik eta Jesusek maite izan gaituen bezala maitatzea. Hark bezala, bizia pertsonengatik ematean datza, eta egunez egun ematean. Garbi dago maitasun hori Jesusen ikasleen seinale dela, **presente egiten baitu Jesus**, komunitatearen erdian. Elkar nola maite duten ikusita, Jesusen bizitza bera eguneratzen ari direla gogoratzen dute denek. Maitasunaren agindu berriak Jainkoaren Herrian errealitate berri bat egotea dakar, zalantzarik gabe. Ez da Israel historikora mugatzen, baizik eta paganoei ere zabaldu zaie, Jainkoak fedearen atea



- Kristok, Elizaren senarrak, pazko pozez bete ditzan bere erreinuaren alde diharduten guztiak. Egigun otoitz. R/.
- Kristok, egiazko giltzarriak, ebanjelioaz argi ditzan bere piztueraren berri ona ezagutzen ez duten herri guztiak. Egigun otoitz. R/.
- Kristok, egiazko goiz-argiak, atsekabetuen negarrak entzun eta sufritzen duten guztien minak arindu ditzan. Egigun otoitz. R/.
- Kristok, egiazko testiguak, lagun diezagula ebanjeliozko-pozez, bere heriotzaren garaipena ezagutzen ez dutenentzat osasun eta argi izaten. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, Kristorekin bat egin gaituzu egiazko mahatsondoaren ahienak bezala; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure Espiritu Santua, elkar maitatuz santutasun eta bakezko fruituak eman ditzagun. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

### **Eukaristiaren liturgiari oharpena**

Kristori lotuta fruitu eman: hori dugu bokazio. Bere ondo-ondoan jarriko gara orain mahaian, guretzat puskatzen den Haren Gorputza eta guretzat isurtzen den Haren Odola hartzeko.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;  
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizi zea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Bedeinkapen nagusia** (*Ikus liburuxka honetako 78-79. orrialdeetan*)